

## Donostian, 2009ko otsailaren 27an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,  
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Andres Iñigo, Jagon sailburua,  
Sagrario Aleman,  
Adolfo Arejita,  
Aurelia Arkotxa,  
Jean-Louis Davant,  
Patxi Goenaga,  
Jean Haritschelhar,  
Emile Larre,  
Andoni Sagarna,  
Patxi Salaberri,  
Pello Salaburu,  
Ana Toledo,  
Joan Mari Torrealdai,  
Patxi Uribarren eta  
Piarres Xarriton euskaltzainak

Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Alfonso Mujika eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaitan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Miren

Azkaratek, ahala P. Goenagari; Miren Lourdes Oñederrak, ahala A. Arko-  
txari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigo-  
ri; Mikel Zalbidek A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10:10ean hasi da Gipuzkoako Aldundiaren Jauregian, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak eta, bertan direla.

**1. Bilera hasi baino aurreko ohar-  
rrak.** Euskaltzainburuak, aretoan bil-  
duak agurtu ondoren, ahoz honako  
oharrok egin ditu:

**1.1. Batzarraren irauteaz.** A. Urrutia euskaltzainburuak bilkura goizez bes-  
terik ez dela izango jakinarazi die eto-  
rrikoiei.

**1.2. Ageriko bilkuraz.** Arratsaldean  
4:30etan ageriko bilkura izanen da,  
hilberri-txostenak irakurtzeko.

**2. Aktari buruzko oharrrak.** J. L. Li-  
zundiak eta J. M. Torrealdaiak ohar  
bana egin dute. Biak ontzat eman dira.

### 3. Exonomastika

**3.1. Europako hiri nagusiak I onartzea.** Aurreko bilkuran banaturiko zerrenda, Europako hiri nagusien izenekin, oharrrik gabe, onartu da.

**3.2. Alfabeto zirilikoaren euskarazko letraldaketa.** X. Kintanak jatorrizko hizkuntzetan alfabeto zirilikoaz idatziriko izenen transkripzioaz argibide orokorrak azaldu ditu, eta idatzirik banatu dira. Ondoren, Alfontso Mujikak, banatu diren transkripzio-taulei buruzko ohar eta argitasun batzuk egin ditu, Ivan Igartuak ий eta ѡй digrafoei proposatu dituenak, adibidez. Irizpide horiekin, Errusia, Bielorrusia, Ukraina eta Bulgariako hiriburuak eta bertako hiri nagusien euskarazko transliterazioa proposatu da. Gure orain arteko tradizioa kontuan izanda, kasu batzuetan salbuespenak egin dira, hala nola Sebastopol eta San Petersburgo hirien kasuan. J. Haritschelharrek *Jalta* izenaren antzera, j grafema euskaraz dararmaten izenak ebakitzeko moduz oharra egin behar dela esan du. J.L. Lizundiak erantzun dio hori kontutan hartuko dela eta L. Oñederrarekin jada hitzordua jarria dela hori argitzeko.

**3.3. Europako hiri nagusiak II aurkeztea.** Exonomastika batzordeak 2009/2/10ean onarturiko zerrenda aurkeztu du, Errusia, Bielorrusia, Ukraina eta Bulgariako hiriburu eta hiri nagusien izenak euskaraz emateko hitzekin eta beroriei buruzko datu argigarrieekin. Oharrak egin eta bidaltzeko epea martxoaren 20raino jartzea erabaki da.

### 4. Hiztegi Batua

Pello Salabururen zuzendaritzapean, eta Jose Antonio Aduriz idazkariaren laguntzarekin, *esthéticienne*-tik *etorberri*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu egin dira.

### 5. Eskuartekoak

**5.1. Ordainketaren agiriak.** Uztail, abuztu, eta iraileko ordainketa-agiriak banatu ditu J. J. Zearretak. Laguntzailea azarotik otsailera bitartean lanean izan ez delako, pertsonal faltaz ezin izan da lehenago ordaindu. Gerta daiteke, J. L. Lizundiak esan duenez, oraindik kontzepturen bat ordaintzeke gelditzea.

#### 5.2. Datorren martxoko bilkurak

**5.2.1. Osoko batzarra.** Berau martxoaren 26an, ostegunean arratsaldeko lau eta erdietan egingen da Bizkaian, Urkiolan hain zuzen ere.

**5.2.2. XVI. Barne Jardunaldiak.** Hurrengo egunean, ostiralean, leku berean goizeko 9etan, Barne Jardunaldiak hasiko dira eta egun bereko arratsaldean eta biharamun goizean segituko dute, banatu den programaren arabera.

Barne Jardunaldietan, banatu den programaren arabera, Barne Erregelak eztabaidatu eta, hala bategokie, eguneratzea proposatuko da. Ondoren IKER eta JA-GON sailburuek ibilian ari diren egitasmoen berri emanen dute, bai eta egitasmo berrienak ere. Halaber, euskararen kalitateari buruzko gogoetak eginen dira.

Era berean, Argitalpenei doakienez, *Eusker*a agerkariaren eraberritzea eta B. Atxagaren proposamen bat aurkeztuko dira. Bukatzeko, IKT batzordeak Lexikoaren Behatokiaz hitz eginen du, eta, azkenik, Euskaltzaindiaren webguneaz ere bai.

Ostatua *Lagunetxea hotela* izanen da. Horren premia duten euskaltzainei izena aurretik ematea eskatu zaie.

Larunbatean, bazkalondoan, Urkiola inguruko parke naturalean txangoak egiteko aukera izango da.

**6. Azken ordukoa: Tx. Peillenen euskaltzain emerituaren ordezkoa hautagaia.** Txomin Peillen euskaltzaina emeritu egoerara iragatearen ondorioz, gaur amaitzen zen horren ordezkoko hautagaiak aurkezteko epea. Kandidatu bakarra aurkeztu da: Xarles Videgain jauna, P. Xarrittonek, J. Haritschelharrek, J. Lakarrak eta B. Oihartzabalek sinaturiko dokumentuarekin, aldean proposaturikoaren *curriculum vitae* duela. Bozketa datorren martxoaren 26an izanen da.

Batzarra 14:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

## Ageriko bilkura

Donostian, 2009ko otsailaren 27an.

Otsailaren 27an, arratsaldeko 16:30ean, Euskaltzaindiak ageriko bilkura egin du Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian, hilberri-txostenak irakurtzeko.

Ageriko bilkuran bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren, Ana Toledo, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.
- Pierre Andiazabal, Koldo Artola, Joseph Camino eta Joseba Intxausti ohorezko euskaltzainak.
- Joxe Agustin Arrieta, Marcel Etxehandi, Eustasio Etxezarreta, Patxi Galé, Michel Itzaina, Maria Pilar Lasarte, Manu Ruiz Urrestarazu, Patri Urkizu eta Juan Jose Zearreta euskaltzain urgazleak. Ezin etorria adierazi dute Pakita Arregik eta Jose Ramon Etxebarriak.
- Amaia Okariz eta Maixa Goikoetxea Euskaltzaindiko langileak.

Andres Urrutia euskaltzainburuak ongi etorria eman die bertaratuei, eta nork noren hilberri-txostena irakurriko duen gogorarazi: Mari Pilar Lasartek Milagros Bidegain euskaltzain urgazlearena irakurriko du, Joseba Intxaustik Jose Ignacio Telletxea Idigoras euskaltzain urgazlearena, Pierre Charrittonek Jackes Etxeberri euskaltzain urgazlearena, Jose Luis Lizundiak Henrike Knörr euskaltzain osoarena, Jean Haritschelharrek Xabier Diharce «Iratzeder» euskaltzain osoarena eta, Adolfo Arejitak, Karmelo Etxenagusia ohorezko euskaltzainarena.

### **Maria Pilar Lasarte: «Milagros Bidegain»**

Milagros Bidegain Donostian jaio zen 1922ko ekainaren 6an eta 2006ko abenduaren 23an hil. Batxilergoa amaituta ez zen Unibertsitatera joan, baina bai ordea ikasten jarraitu. Hala, etxean, Filosofia eta Letrak ikasteari ekin zion eta Latinean espezializatu zen. Azterketak Valladoliden egiten zituen, eta han eskuratu zuen titulua.

Titulazioa lortu ondoren, lagun batek eta berak akademia bat ireki zuten Irunen. Bertan, kartzelatik irten berria zela, aurkitu zuen lana Koldo Mitxelenak. Akademian ez ezik, Donostiako Institutuan, Gurutzearen Alaben ikastetxean eta Erreterian ere irakasle ibili zen Bidegain ondorengo urteetan, harik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Liburutegiko liburuzain plaza lortu zuen arte. Bertan izan zen, jubilatuz arte.

Urte askotan zehar, euskarazko eskolak eman zituen Gipuzkoako Foru Aldundian. Bestalde, Irun Hiriko literatur sarien epaimahaikide ere izan zen.

### **Joseba Intxausti: «Jose Ignacio Telletxea Idigoras»**

Jose Ignacio Telletxea Idigoras Donostian jaio zen 1928ko apirilaren 15ean eta 2008ko martxoaren 8an hil zen. Euskaltzaindiak 1979ko abenduaren 20an euskaltzain urgazle izendatu zuen.

Erromako Unibertsitate Gregorianoan Eliz historian, eta Madrilgo Unibertsitate Konplutensean Filosofia eta Letretan lizentziatu zen. Teologian doktorea zen. Gasteizko Teologia Fakultatean irakasle izan zen, bai eta Salamancako Elizaren Unibertsitatean ere. Salamancan jubilatuz zen.

Fray Bartolome Karrantzakoaren lana zabaldu zuen, baita Catalina Erauso, Manuel Larramendi, Molinos, Miguel de Unamuno eta beste hainbat pertsonaia historikorena ere. Loiolako Inazioren biografia da, ezbairik gabe, bere lanik eza-gun eta zabalduena: *Ignacio de Loyola, solo y a pie*.

Joseba Intxaustiren esanetan, «bizitza pertsonala eta akademiko-soziala, biak, erabat gurutzaturik ageri dira Telletxearen bizi-ibilaldian, ikerkuntza eta argitalpenerako bizi zela, baina ez laborategi ezkutu batean, gizarteko eta jakitunen arteko harremanak ongi zainduz baizik». Ikerlari ona, hizlari aparta –Joseba Intxaustiren aburuz– mundura begira eta munduan ibiliz bizi izan zen. Telletxeak bere erroak Euskal Herrian gorde zituen beti. Intxaustiren esanetan, «Donostiako

historiak asko zor dio, berak ondu dituen lanengatik, noski, eta, era berean, sustatzaile bezala egin duen lan bipilagatik, BEHSS sortu eta gidatzeagatik».

### **Pierre Charritton: «Jacques Etcheverry»**

Jacques Isidro Etcheverry Unanue Donibane Lohizunen jaio zen 1921eko abenduaren 16an eta, Baionan hil, 2008ko martxoaren 22an. 1965eko azaroaren 24an euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak. Pariseko Sorbona Unibertsitatean Filosofia eta Psikosoziologia ikasketak egin zituen.

Donostiako Herri Irratiarekin egin zituen kolaborazioak, *Basque Eclair* egunkarian ere lan egin zuen Baionan, eta *Activités en Pays Basque* Baionako Merkataritza Ganberaren aldizkariaren zuzendaria izan zen. *Gure Herria* aldizkarian artikulak argitaratu zituen. Radio France-ren «Kronikak» izeneko atala ere egin zuen.

Baionako Euskal Museoa euskara klaseak eman zituen, baita Baionako Lizeoan ere. Etcheverry izan da, Frantziako Administrazioak ordainduta, euskarazko eskolak eman dituen Iparraldeko lehen irakaslea, batxilergoa barne. Lizeoaz gain, Elizaren ardurapeko ikastetxeetan ere irakasle izan zen. Jacques Etcheverryk euskalduntze zein alfabetatze eskolak eman zituen bere bizitzan zehar. *Lapurdi itsas-hegia* liburua argitaratu zuen, 1977an.

### **Jose Luis Lizundia: «Henrike Knörr»**

Henrike Knörr Borràs Tarragonan jaio zen 1947ko martxoaren 2an eta, Gasteizen hil, 2008ko apirilaren 30ean. Aita Gasteizkoa eta ama katalana, zazpi urte zituela Gasteizera etorri zen bizitzera. Filosofia eta Letretan lizentziatu zen 1981ean, Madrileko Complutense Unibertsitatean, Filosofia Hutsaren sailean, Alfred N. Whitehead filosofoaren gaineko lan batekin. Koldo Mitxelena-ren laguntzaile izan zen Arabako Ikastetxe Unibertsitarioan. Gero, Gasteizko Filologia, Geografia eta Historia Fakultatean irakasle izendatu zuten eta horretan jardun zuen hil arte. 1987an, Euskal Filologiako Doktore titulua eskuratu zuen, Maurice Harriet apaizaren hiztegi argitaragabeari buruzko tesiarekin, Koldo Mitxelena-ren zuzendaritzapean. Euskal Filologiako katedraduna zen, 1995az gerotik.

Euskaltzaindiak 1975ean hautatu zuen euskaltzain urgazle eta bi urteren buruan, 1977ko otsailaren 26an, euskaltzain oso, Antonio Arrueren ordeiz. Euskal-

tzaindiaren barne kargu batzuk bete zituen, hala nola, Euskaltzaindiko buruordea, 1995etik 2004ra bitartean; diruzain, Jagon sailburu eta idazkaria (1992-1995) eta Onomastika batzordeburua (1984-2001); 2004ko abenduaren 17tik Iker Sailburua zen; bestalde, Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria zen 2001etik.

Artikulu ugariren eta liburu batzuen egilea. Gogokoen zituen gaien artean leku eta pertsona izenei buruzko ikerketak eta euskararen historia eta euskal testuak daude. Hainbat egunkaritan eta aldizkaritan argitaratu dira bere artikuluak. 1993an, beste batzuekin batera, *Landazuri* aldizkaria sortu zuen.

Henrike Knörrek Akademian egindako ibilbideaz bereziki mintzatu da Jose Luis Lizundia, baina beste erakunde, elkarte eta talde askotako partaidetza eta lankidetzara ere aipatuz: Euskal Herriko Unibertsitatea, Sancho el Sabio erakundea, Landazuri elkarte, Eusko Ikaskuntza, Euskal Herriko Adiskideen Elkarte.

### Jean Haritschelhar: «Xabier Diharce «Iratzeder»

Xabier Diharce «Iratzeder» Donibane Lohizunen jaio zen 1920ko urtarrilaren 4an eta, Beloken hil, 2008ko urriaren 13an. Uztaritzeko eta Baionako Seminariotan egin zituen apaiz ikasketak. Hogeita bat urte zituela, Belokeko beneditarren komentuan sartu zen. Lau urte geroago, 1945ean, apeztu zen. 1948tik 1968ra arte beneditar nobizioen irakasle izan zen; gero priore eta 1972an abade izendatu zuten. Hamabost urtez izan zen Belokeko abade. Ondoren, 67 urte zituela, 1987an, Afrikara joan zen, Dahomey estatuko Zagnanado komentura, baina hamazazpi hilabete besterik ez zituen bertan eman, eta berriro Belokera itzuli zen. Hor bizi izan zen azken arnasa eman arte. 1953ko urtarrilaren 1ean euskaltzain urgazle izendatu zuten eta 1962ko uztailaren 27an, berriz, euskaltzain oso, J. Elissalderen orde. 1963an, Beloken, sarrera hitzaldia egin zuen, «Belokeko euskal bidea» gaiari buruz. Kanta askoren letrak prestatu zituen, lehenik Gabriel Lertxundi beneditarrarekin batera –*Kantikak* liburua, horren emaitza– eta berak bakarrik geroago. Urteaga, Garbizu, Olaizola eta Bengoa musikalariek musika jarri zizkieten. Aita Donostiak musikaturikoak ere badira.

*Salmoak* obra nagusiaren egokitzaile izan zen Iratzeder. Bere liburu batzuk: *Argiz argi*, *Zeru menditik*, *Uhaineri nagusi*, *Oroitzapen purrukkak*. Bere olerki liburuak *Biziaren olerkia* liburuan bilduak dira.

Iratzeder poetak lagunduta –bere olerkiek lagunduta– egin du Jean Haritschelharrek gaurko hitzaldia. Itsasoa, mendia, Jainkoa, Euskal Herria, euskara...

horiek izan dira Iratzederren poesiaren gai nagusiak, Haritschelharrek esan bezala. Poemaz poema joan da, eta Belokeko abadearen ahotsa berpiztu du gaurko ekitaldian. Horrela amaitu du Jean Haritschelharrek: «Joan zaigu Iratzeder olerkaria, Belokeko Aita Abade ohia, Jainkoaren, euskararen eta Euskal Herriaren zerbitzari umila. Ba ote da xede edo helburu ederragorik? *Biziaren olerkia* liburua eskaini didalarik hauxe idatzi zuen: «*Nere pindarrak bihotz zonetan pindar piztuko delako esperantzan.*» Halakoa zen Iratzeder eta Lafitte-k idatzi zuen bezala: «*Bertzek jo dezatela hil-zemua goizetik arrats, on bazaiote. Iratzeder-ek Bazko ezkila joiten dauku, mundu huntako argietarik bertzeko argietarat geramatzala, argiz-argi.*» Ene otoitz xumea –gaineratu du Haritschelharrek–: betiereko argian dagoela!».

### Adolfo Arejita: «Karmelo Etxenagusia»

Karmelo Etxenagusia Uribe Iurretan jaio zen 1932ko apirilaren 24an eta, Bilbon hil, 2008ko azaroaren 6an. Gordexola, Artea eta Gasteizko seminarioetan egin zituen apaiz ikasketak. 1955ean apaiztu zen eta segidan Seminarioko irakasle izendatu zuten. Geroago Comillas-eko Seminarioan ikasi zuen Eliz Zuzenbidea. Ondoren, Erroman, Teologia eta Eliz Zuzenbidea ikasten jarraitu zuen.

Karmelo Etxenagusiaren literaturarekiko zaletasuna handia izan zen eta hala erakutsi zuen beti. Bere ikasle izandakoen esanetan, berak sentitzen zuen zaletasun bera pizten zuen jendearengan. Euskal literaturari buruzko antologia batzuk idatzi zituen, besteak beste *Euskal Idazleak bizkaieraz. Antologia. Testu azterketak. Ariketak*, Jon Kortazar eta Aitor Etxeberriaren laguntzaz egina, eta *Iparraldeko Euskal Idazleak. Antologia*. 2003an, *Euskerea nire bizitzan* liburua kaleratu zuen. Arejitaren hitzetan, «libururik ederrena, Etxenagusia bizkaieraz zuen doinu ederra gozatu ahal izateko»

Mikel Zaraterekin batera, Derioko Udako Euskal Ikastaroen sortzaile izan zen, 1969an. Aurrerantzean, Derioko Udako Ikastarotik sortu zen Labayru Ikastegiaren bultzatzaile handienetarikoa ere izan zen. 1995eko irailaren 8an, 63 urte zituela, Bilboko gotzain laguntzaile izendatu zuten, eta zeregin horretan ibili zen ordutik 2008. urtera arte, jubilatuta arte. Ohorezko euskaltzaina zen, 1998ko apirilaren 24an izendatua.

Batzarra 18:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria